

## Balorezko proposamena

Gaur egungo beharren arabera, pertsona askok zailtasunak dituztela egunerokoa eta hainbat gauza gehiago egiteko ikusi dugu.

Baina gure enpresak, helduen beharrak aztertuz, haien bizitza lanpetuetan, zenbait jarduera erraz ez egiteko, ordaintzeko prest daudela ikusi dugu. Horregatik, gure enpresaren bitartez jarduera horiek asetzea proposatu nahi diegu. Hau da, adibidez, pertsona helduen erosketak egiterako orduan, edo medikura joan behar badute eta bere seme alabek lagundu ezin badituzte, gure enpresak gure langile finkoen bitartez egin ditzan. Horretarako APP bat sortuko genuke, bezeroa eta zerbitzua eskaintzen duenari elkararazteko.

Bestalde, aplikazioko beste arloa jendearen segurtasuna bermatzeko izango da. Batik bat, gauean bakarrik bueltatzen diren gazteak beraien artean komunikatzeko eta elkarrekin bueltatzeko. Haientzako errazagoa delako egoera txar edo arriskutsu batean ikustea. Gure aplikazioa erabiltzeko **zenbait gauzak egin beharko** dituzte gure bezeroek: haien izena, abizenak eta NAN-a (nortasun-agiri nazionala) eman beharko dituzte, eta haien bideo bat bidali beharko dute guk esandako esaldi batekin, frogatzeko **egiazko pertsonak** direla eta beraien esandako identitatea egiazkoa dela. Orduan gauza hauek guztiak eginda guk berifikatutako tik bat jarriko dizkiegu perfilean beraien artean etxeetara bueltarazeko orduan jakiteko nortzuk berifikatutak dauden eta nortzuk ez, orduan beraien autatuko dute norekin bueltatu nahi duten etxerako bidean.



